

getxoBerri

Getxo
bizi ezazu

f t #GetxoBiziEzazu

Doako alea

1714 zk.
www.getxo.eus

Urtarrilak 19
>> Urtarrilak 29

2023

/ Nabarmenezkoak

- > Obren aurretiazko komunikazioak HABetan (2. or.)
- > Jaki eta produktu higienikoen bilketa saharar herriarentzat (2. or.)
- > High Felicity taldea Romo Kultur Etxean arituko da (3. or.)



* Xabier López-Arostegui saskibaloiariak 2022ko Getxoko Kirolari Onenaren saria lortu du (4. or.)

Antzerkia. Hilak 28, larunbata, 19:30ean, Muxikebarrin, "Cabezas de cartel", Perigallo Teatroyen eskutik. 12€.

Dantza. Hilak 29, igandea, "Sonoma", La Veronalekin, 19:30ean, Muxikebarrin. 24€.

A-
GENDA

Postontzietan utziko dira 32.000 horma-egutegi, udalerriko pertsona nabarmenen irudiarekin eta hondakinak behar bezala bereizteko mezuekin

“Getxon hobeto birziklatzen dugu”, herritarrak gehiago eta hobeto birziklatzera animatzeko kanpaina berriaren leloa

Getxon hobeto birziklatzen dugu, Udalak Ecoembes eta Ecovidrio irabazi-asmorik gabeko erakundeekin batera bultzatutako kanpaina berriaren leloa da. Lan ona egiten ari diren arren, udalerriko herritarrei are gehiago eta hobeto birziklatzen laguntzea du helburu. Kanpainaren euskarri nagusia hormako egutegi bat da, hilerio Getxoko pertsona ospetsu baten irudia duena. Bertan, hondakinak datu bitxi eta interesgarrien bidez nola bereizi erakutsiko digute, eta etxeetan birziklatzean egin ohi diren akatsik ohikoenak erakutsiko dizkigute.

Egutegian agertzen diren pertsonaia honako hauek dira: Garazi Sánchez surfalaria, Naomi Matthews borrokalaria eta Iñaki Zubizarreta saskibaloiko jokalaria profesional ohia, hizlari eta dibulgatzailea; Haizea López eta Unai Elorriaga idazleak; Maia García Vergniory ikertzaile zientifikoa; Alex Orbe ilustratzailea; Georgina Barrios pianista; Afrika Bibang abeslaria; Unai Basurko nabigatzailea; Asier Hormaza aktore eta ekoizlea; eta Álvaro Martínez sukaldaria. Egutegia Getxoko etxeetako postontzietan jasoko da; guztira 32.000 ale banatuko dira.

“Gaur egun, herritarrek kontzientziazio handia dute birziklatzeari buruz, baina garrantzitsua da ahalik eta modu zuzenenean egitea, kaleko edukiontzietan hondakinak behar bezala ez bereizteak eragiten dituen ondorioengatik. Nahiz eta hainbat hamarkada daramatzagun birziklatzen, eta gure ezagutza eta kontzientziazioa gero eta handiagoak diren, oraindik ere badira okerreko edukiontzian amaitzen duten produktu batzuk, ‘hondakin desegokiak’ ere esaten



Egutegiaren apirilko irudia Afrika Bibang abeslariaren mezuarekin

zaienak; eta horiekin amaitu behar da. Hondakinak birziklatzea funtsezkoa da gure kontsumoaren ingurumen-inkaktu murrizteko, baina gaizki birziklatzeak diruaren eta energiaren gainkostua dakar”, Amaia Agirre alkateak adierazi duenez.

Online erronka

Informazioa emateko eta herritarren jakin-mina pizteko, postontzietan banatuko den egutegiak Ba al zenekien...? erako formatua erabiltzen du, mezuak eta aholkuak errazago memorizatzen. Adibidez, abenduan, Asier Hormaza aktore eta ekoizlearen argazki batek adieraziko digu zera-mika ez doala edukiontzi berdera; apirilean, Afrika Bibang abeslariak gogora ekarriko digu aluminiozko papera eta film gardena edukiontzi horira doazela; eta irailean, Unai Elorriaga idazleak esango digu kafe-kapsulak fabrikatzailearengana eramane behar direla birziklatzeko edo Udaleko Garbigune mugikorrean utzi behar direla.

Edukiontzi guztiekin lotutako mezuak zabalduko dira: berdea (beira), horia (plastikozko ontziak, latak eta briak), urdina (papera eta kartoia), grisa (gainerakoa) eta marroia (organikoa).

Getxotarren modu aktiboan parte hartzeko aukera izan dezaten, egutegiko irudi bakoitzaren beheko aldean QR kode bat dago inprimatuta. Kode horrek webgune batera eramaten du, eta bertan birziklatzeari buruzko erronka bat agertzen da. Test erraz baten bidez, herritarrei erakutsiko zaie nola birziklatu behar den hondakin desegokiak sortzea saihesteko, eta definituko zaie birziklatzerakoan zer nolako nortasuna duten. Testak, normalean egiten ditugun akatsak ditu ardatz. Bideojokoaren formatu baten bidez (“gaming”), parte hartzen duten pertsonen puntuak jasoko dituzte egindako galderei erantzutean. Puntuazioaren arabera, birziklatzeko nortasun jakin bat izango dute.

Azkenik, lau totem jarriko dira Bidezabalena, Algortako Geltokia



Totemetako bat kalean

plazan, Bizkaia Zubiko plazan eta Romoko Santa Eugenia plazan. Horietan, egutegiko protagonisten irudiak agertuko dira, baita mezu nagusiak ere, “teaser” gisa (filmaren aurrerapena arreta erakartzeko, baina trama argitu gabe).





URTARRILAK 22 IGANDEA

Zinematziki. 12:00etan, Muxikebarrin (Areeta aretoan), "Ama Muuu! Etxera itzuli da" (euskaraz). Adin guztientzat. 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areeta-ko Andrés Isasi Musika Eskolan, "La gran aventura suiza". Sarrera: 2,50€.

URTARRILAK 24 ASTEARTEA

Idazketa talde feminista, Txatxarrak, testuak sortzeko. 19:30ean, Azebarri Kultura elkartearen. Izenematea: 619935541 egizugetxo@gmail.com

URTARRILAK 25 ASTEAZKENA

Versadas olerki-kluba. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, Miguel Hernández. Sarrera dohainik.

URTARRILAK 26 OSTEGUNA

Zinemabarri. Muxikebarrin, 19:00etan, "La maternal", Pilar Palomeroren filma. Gaztelaniaz. 12 urtetik gora. 3,50€.

Gizatiar. Batzar Nagusia, 18:00etan (18:30ean, bigarren deialdian), Romoko San Jose Parrokiako lokaletan. Bazkide-txartel eguneratua eta zigilatua aurkeztu behar da bozkatzeko. Antolatzailea: Gizatiar Romo-Areetako emakumeen elkarte sozio-kulturala.

Uribe Kostako Irakurzaileen txokoa. "Ez erran inori" liburuaz, Maddi Ane Txoperenarekin, 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean. Izenematea: 619935541 egizuge-txo@gmail.com

URTARRILAK 27 OSTIRALA

Kontzertua. Arrigunagako barrikuak. 21:00etan, Muxikebarrin, Joshua Edelman Trio: "My Greenwich Village Stories". 10€. **Zine-Kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Compartimento nº6", Juho Kuosmanenen filma. Gaztelaniaz. 12 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.

URTARRILAK 28 LARUNBATA

Antzerkia. 19:30ean, Muxikebarrin, "Cabezas de cartel", Perigallo Teatroraren eskutik. Sarrera: 12€.

Kontzertua. 19:30ean Areetako Musika Eskolan, Trio Lumiere (sopranoa, klarineta eta pianoa). "Neguko bidaia" zikloaren barruan. Sarrera: 5€.

URTARRILAK 29 IGANDEA

Dantza. "Sonoma", La Veronalekin, 19:30ean, Muxikebarrin. Sarrera: 24€.

Zinematziki. Muxikebarrin, 12:00etan, "Mundo extraño". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50

- **Estimulazio** kognitiboko eta memoriarako saioak, etxetik etxetik adineko pertsonentzako. 10 urtetik gorako prestakuntza eta esperientzia. Tel: 617 23 42 41.

- **Kefir** esnea oparitzen dut. Deitu 635 114 244 zenbakira (Maria).

- **Ingelesa.** Irakasleak klaseak ematen ditu. Deskontuak Gazte txartelarekin. Romo. Tel: 687 00 06 50.

URTARRILAK 19 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean, "Ametsen ametsak" Albokaren eskutik (euskaraz). 4-9 urte bitarteko umeentzat. Sarrera dohainik.

Zinemabarri. Muxikebarrin, 19:00etan, "El agua", Elena López Rieraren filma. 12 urtetik gora. 3,50€.

Literatura solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, literatura solasaldia Luisa Etxenikeren "Cruzar el agua" liburuen inguruan.

Antzerkia. 18:30ean, Romoko San José parrokiaren, "Yo soy sketch", Las Guindillas taldearekin. Sarrera dohainik. Antolatzailea: Gizatiar Romo-Areetako emakumeen elkarte sozio-kulturala.

Hitzaldia. "Denontzako eskola. Kulturartekotasuna, euskara eta bizikidetzak", Amaia Barquin irakaslearen eskutik, 17:30ean, Romo eskolan. Euskaraz, aldi bereko itzulpenarekin. Haurtzaindegi zerbitzua. Aforo mugatua. Izenematea: <https://labur.eus/sqclv>. Antolatzaileak: Udala eta Egizu..

URTARRILAK 20 OSTIRALA

Bakarka musika zikloa. 20:00etan, Romo Kultur Etxean, High Felicityren ekitaldia. Sarrera: 5€.

Zine-Kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Benediction", Terence Daviesen filma. Jatorrizko bertsiotan azpitituluekin. 12 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.

Hitzaldia. 18:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Vituperios musicales: a vueltas con las críticas de los críticos". Hizlaria: Javier Campo (organista eta idazlea).

Hitzaldia. 19:00etan, Villamonteko Kultur Etxean, "Yoghismo: Sistema para la salud y la consciencia en la Nueva Era", H. Tardónen eskutik. Antolatzailea: Anahata kultur elkarte.

URTARRILAK 21 LARUNBATA

Kontzertua. 19:30ean Areetako Musika Eskolan, Ernesto Chuliá (tronpeta) eta Pia Rojas (piano) bikotearen emanaldia "Neguko bidaia" zikloaren barruan. Sarrera: 5€.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukiarren egiazkotasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Nabarmetzen dira Flyscherako bisitak eta 86 esperientzia eta planak, publiko guztientzat

Getxok bere eskaintza turistikoa aurkeztuko du FITURen

Getxo FITUR-Nazioarteko Turismo Azokan parte hartzen ari da aurten ere, hilaren 22ra bitartean (igandea) Madrilen egingo dena. Gure udalerriko eskaintza turistikoa Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailaren *Euskadi-Basque Country* standean egongo da; bertan Bilboko eta Bizkaiko erakargarri turistikoak biltzen dira, Foru Aldundiak koordinatuta.

Irantzu Uriarte Turismo zinegotziak, Ion Gorcka Elgezabal Jata Ondoko presidentearekin batera, *Bizkaiko Flysch* proiektua aurkeztuko du: 2023rako esperientzien eta planen baliabidea eta eskaintza. Era berean, Uriartek *Getxo*, egunero plan bat proiektuaren berri ere emango du, gure udalerrian 2023an gozatu ahal izango di-



ren esperientzien eta planen eskaintza, 86 plan, publiko eta gustu guztientzat (11.000 hitzordu baino gehiago). Irantzu Uriartek gogorarazi du Getxo produktu anitzeko helmuga dela. Plan alternatiboak eskaintzen dizkiegu baliabide ezagunenei, eta horietako gehienek ez dute gutxienezko talderik sortu behar horietaz gozatzeko. Sektorea-

rekin batera lan egiten dugu turistek urte osoan bisita gaitzaten lortzeko, ez bakarrik udan. Bisitatzen gaituztenek Getxon egonaldia luzatzea nahi dugu, eta sektoreko erakundeek (41 enpresa eta ostalaritzako 224 establezimendu eta gourmet dendak) inpaktu ekonomiko handiagoa lortu ahal izatea.

Obren aurretiazko komunikazioak HABetan

Herritarrengana gehiago hurbiltzeko asmoz, datorren astelehenetik aurrera, hilak 23, Herritarren Arretarako Bulegoak (HABak) zerbitzu berri bat eskainiko diete herritarrei, eta, horren bidez, hirigintzako esku-hartzeekin lotutako obren eta/edo jardueren aurretiazko komunikazioak entregatu ahal dira bulego horietan. Besteak beste, honako esku-hartze hauek: eraikinetan barruko eta kanpoko obrak egitea; tolloak eta errotuluak jartzea; partzelak eta lursailak ixtea; obratoko garabiak eta/edo

karga-jasogailuak eta baliabide osagarriak (edukiontzia, etxolak...) eta abar jartzea.

Aipatutako kudeaketa HABetan bakarrik egin ahal izango da: astelehen, asteazken eta ostiraletan Algortakoan (Torrene kalea 3) eta astearte eta ostegunetan Romo-Areetakoan (Las Mercedes kalea 13), 08:00etatik 14:00etara. Hitzordua eskatu behar da aldezturik, 010 (Call Center) / 944 66 00 telefonoetan (08:00-19:00h., astelehenetik ostiralera) edo <https://citaprevia.getxo.eus> helbidean.

Jaki eta produktu higienikoen bilketa saharar herriarentzat

Beste urte batez, Udalak eta ATFAL Getxoko Sahararen aldeko Elkartek parte hartuko dute saharar herriaren aldeko Euskal Karabana Solidario-rako elikagai ez-galkorrek jakiak (atuna eta sardinak oliotan, eta lekaleak) eta oinarritzko produktu higienikoak (konpresak eta helduentzako eta adingabeentzako oihalak) biltzen. Helburua da, ahal den neurrian, Argeliako Tinduoufeko saharar errefuxiatuek pairatzen duten elikadura-krisia arintzen laguntzea. Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak nabarmendu du "Getxo Bir Ganduz dairarekin

senidetuta dago 1994az geroztik, eta ordutik elkartasuna adierazi du hainbat ekimenen bidez, hala nola karabana honen bidez, dibertsitate funtzionala duten pertsonen hezkuntzarako laguntzen bidez edo adingabeentzako Oporrak Bakean programaren bidez. Herritar getxotarrei dei egin nahi diegu sahararrek bizi duten elikadura-krisiari aurre egiten lagun dezaten, eta ziur nago beste behin ere erantzuna emango diotela". Produktuak Fadurako eta Gobelako kiroldegietan utzi ahal izango dira urtarrilaren 31ra arte (ikasleen familiek eskoletan utzi ahal izango dituzte).

Lope de Vega kaleko 12ko eraikinari buruzko epaiaz balorazio positiboa

Udalak positibotzat jo du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epaia, Romoko Lope de Vega kaleko 12.eko eraikina (antzinako Nagusien Etxea eta Udal Euskaltegia) eraistea eragozten zuen kautelazko neurria indarririk gabe utzi duena. Epaia horrek "lehenetsuna ematen dio proiektu berriari hasiera eman beharrik ordezkatzen duen interes orokorrari, Udalak obra abian jartzeko jaso dituen funtsak arriskuan ez egoteko".

Udaleko zerbitzu juridikoak, Foru Aldundikoekin harremanetan jarrita, hura nola gauzatu aztertzen ari dira.

Eraikinean aurreikusitako Be-launaldien arteko zentro berriak mendekotasuna duten adinekoentzako 100 foru-plaza eta gazteentzako 40 udal-zuzkidura-bizitoki hartuko ditu, eta beheko solairuan 283 m²-ko lokal bat, Romoko Ibar Nagusien Etxea adinekoen elkarte etorkizunean birkokatzeko. Adin desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzazentro berri hau bultzatzea Legegintzaldiko Planean hartutako konpromisoetako bat da eta Europaren babes handia du, aurreikusitako inbertsioaren %82,5erako 'Next Generation' funtsekin.





Berbalaguna eta Gurasolaguna ekimenetarako izenematea

Urtarrilaren 31ra arte zabalik egongo da euskara gehiago erabiltzea helburua duten Berbalaguna eta Gurasolaguna ekimenetan parte hartzeko izen-ematea. EGIZUK antolatuta, astean behin, ordubetez, eta talde txikitik, parte-hartzaileak elkartuko dira, mintzatzeko jardueraren bat egiten duten bitartean. Taldeetan euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak mintzapraktika egin nahi dutenekin elkartuko dira. Informazioa: egigugetxo@gmail.com, 619935541 (Berbalaguna)/622433085 (Gurasolaguna).

Bestalde, euskara familietan sustatzen duen SENDI proiektuaren barruan, argazkilaritza tailerra egingo da 6 eta 12 urte artekoentzat, larunbatean, urtarrilak 21, 10:00etan, Azebarri elkartearen. Izen-ematea: 622433085 / sendigetxo@gmail.com

Inpaktuen neurketarako tailerra Lankidetzaren arloko erakundeentzat

Inpaktuen neurketari buruzko tailerra izango da otsailaren lehen asteazkenean, 09:30etik aurrera, Getxo Elkartegian, Garapenerako Lankidetzaren esparruan lan egiten duten erakundeentzat. Alboan, Mundukide eta Getxoko Zabalketa eta EKI elkarteek antolatu dute tailerra, Udaren laguntzarekin; eta helburua izango da metodologia erabilgarri batean aurrera egitea, datuen lorpena hobetzeko, emaitzak ebaluatzeko eta nazioarteko lankidetzaproiektuei buruzko hizkuntza komun bat garatzeko, erakundeen eta gizartearen arteko komunikazioa errazte aldera. Adierazle objektiboen adibideak eman ondoren, parte hartzen duten entitateak beren esperientziatik ekarpenak egitera gonbidatuak izango dira, proposamenak egitearekin batera. Izen-ematea: info@fundacioneki.org

High Felicity taldea Romo Kultur Etxean arituko da

Kultur Etxeak sustatutako Bakarka musika zikloak, bertako artista eta taldeen musika formatu txikiko kontzertuen bidez sustatzeko ekimenak, High Felicity taldearen emanaldia programatu du ostiral honetarako, hilak 20, Romo Kultur Etxean. 20:00etatik aurrera, 2013ko hasieran Bilbon sortutako talde hau entzun ahal izango da. Honako hauek osatzen dute taldea: Borja (abeslaria eta gitarra) eta Ander (baxua), Eightmanen indie rocketik etorriak; Jens (gitarra), We Are Standard-WASen (garai hartan Standard bezala ezagutzen zena) Dance Rock dardartiaren aztarnak dakartzana; eta Oier (bateria), hainbat estilotan trostan ibilitakoa eta beste talde batzuekin (Masiompa eta Franz Reichelt bakarkako proiektua) pasioak uztartzen



dituena, eta Gari laguntzen duena, Gari eta Maldanbera taldean. 2015ean, *The High Felicity* izeneko lehen EPA argitaratu zuten, sei abesti biltzen dituen, eta, bi urte geroago, *The*

Take Off. 2014an hasi ziren lehen kontzertuak ematen, eta, orduetik, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Kantabriako hainbat lokal eta agertokitan aritu dira. Emanaldirako sarrerak 5 euro balio du.



Ernesto Chuliá eta Pía Rojas "Neguko bidaia"-n

Ernesto Chuliá tronpetajotzaileak eta Pía Rojas piano-jotzaileak errezitaldia eskainiko dute larunbatean, urtarrilak 21, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, *Neguko bidaia* kontzertu didaktiko-musikalen barruan. Bertan, *Para ti, a mi madre Mari Carmen Ramiro* disko berria aurkeztuko dute, hil ondorengo omenaldia, ama eta emaztearen heriotzaren urteurrenean, Chuliá Ramiro familiaren ekoizpen artistiko guztiaren inspirazioa. 19:30ean hasiko da eta sarrera 5 eurokoa izango da.



"Coge tu cuento y corre" liburua aurkeztu dute

Kultur Etxeko sormen idazketaren tailerreko 19 ikaslek *Coge tu cuento y corre* liburua aurkeztu dute aste honetan, Algortan, 2021-2022 ikasturtean idatzitako 30 ipuinik onenen bilduma, hain zuzen ere. Kontakizunak estilo askotakoak dira, egileen interesak bezain askotarikoak. Badaude memoriak, intriga, umorea... Monica Crespo tailerreko koordinatzailearen arabera, "ipuin hauek suak, desioak, zalantzak dira, arratsaldero lasterketa partekatuta handi bat bezala gertatzen den prozesu hori guztia".

Zurumurrurik Ez tailerra

Zurumurrurik Ez Estrategiak Kulturarteko eta zurumurruen aurkako ikuspegiaren erronkak eta aukerak erakundeetan tailerra antolatu du otsailaren 1 eta 2rako, 09:30etik 11:30era, Algortako Gaztelekuan. Elkarreentzatzat, helburuak dira jardunbide egokiak, oztupoak eta metodologia partekatzea. Izenematea: antirumores@getxo.eus/662425662.

Europar Batasunari buruzko III. Ikastaroa

EurGetxo elkarteak Europar Batasunari buruzko III. Ikastaro-tailerra antolatu du, otsailaren 16an (osteguna) eta martxoaren 2, 16 eta 30ean (18:00etan), Algortako Urgull Zentroan (6. aretoan).

Deustuko Unibertsitateko irakasle eta EurGetxoko elkarte-buru Beatriz Iñarririk emango duen ikastaroan, besteak beste, galdera hauei erantzun zaitza: *Zer da EB?, Zer egiten du?, ezkutuko abantailak eta egungo erronkak*.

Izen-emateak 25 euro balio du eta elkarteak Laboral Kutxan duen kontuan egin behar dira. Horrez gain, izena, abizena eta telefonoa duen mezu elektronikoa bat bidali behar da eurgetxo@outlook.com helbidera. Informazioa: <http://eurgetxo.wordpress.com>

Hitzaldia Urgull Zentroan

Gune berean, EurGetxok eta Algortako Jubilatuen Elkarteak (AJANE) *Ingurumena, Klima eta Europako Itun Berdea* hitzaldia antolatu dute, Asier Garcia Lupiola (EHU/UPV) buru dela. Datorren ostegunean, hilak 26, izango da, 18:30ean (onarpenera ordu berean itxiko da).

XVI. "Getxo Sasoi Sasoi" kirolaren galak 300 bat lagun bildu zituen gurutzatzen "Olatua" terminalean

Xabier López-Arostegui saskibaloilariak 2022ko Getxoko Kirolari Onenaren saria lortu du

Xabier López-Arostegui saskibaloilariak 2022ko Getxoko Kirolari Onenaren saria lortu zuen, Udalak bultzatutako XVI. Getxo Sasoi Sasoi sariak banatzeko Olatua gurutzatzen terminalean egindako saioan. Eurobasketa irabazi zuen Espainiako selekzioko jokalaria bezala denboraldi bikain bat itxi ondoren, Valencia Basket taldeko jokalaria tokiko kirol lorpen gorenena jaso zuen. Irabazleak ezin izan zuen galara joan konpromiso profesionalengatik, eta grabatutako bideo baten bidez eskerrak eman zizkion Udalari, emandako sariagatik "eta udalerriko kirolari guztiei ikusgarritasuna emateagatik. Harro nago nire haurtzaroan Getxoko Saskibalo Kluba-arentzat urte batzuk jokatu ahal izan ditudalako eta orain txikienen erreferente izan ahal naizelako. Harrotasun handi horrek lanean jarraitzera eta helburu hobeak lortzera bultzatzen nau".

Udalerriko kirol klubak eta elkar-
teak ordezkaturik 300 pertsona in-
guru bildu zituen galan, Amaia
Agirre Getxoko alkateak gogora-
razi zuen: "kirol praktikaren azpian
dauden balioak bizitzako benetako es-
kola dira: eguneroko esfortzua, ilusioa,
auto-exigentzia eta etengabe hobetzeko
saiakera, motibazioa eta zorigaiztoak
gainditzea lehiaketa kirola praktika-
tzen duzuenoi definitzen zaituzteten
balioak dira. Eta gizarte bezala aurrez
aurre dauzkagun erronkei modu ko-
lektiboan aurre egiteko orduan kirol-
az haratago hedatu beharreko balioak
dira. Horregatik miresten zaituztegu
eta zuen jokabidea eskertzen dizuegu".

Gainontzeko sariak

Getxo Kirolak udal erakundeko
pertsonal teknikoak, kazetariak
eta kirol esparru getxotarreko
pertsona adituek osatutako epai-
mahaiak, halaber, banakako tituluak
eman zizkien, emakumez-
koen senior kategorian, Raspas del
Embarcadero Arraun Elkarteko
Virginia Díaz arraunlari olinpikoa-
ri; promesa kategorian, Getxo Ige-
riketa Bolue Kirol Elkarteko Irene
Pera igerilariari, zeinek Espainia-
ko Haurren Kategorian 4 domina
lortu zituen; eta Raspas del Em-
barcadero Arraun Elkarteko Aitor
Blanco arraunlariari, gazteen skiff
modalitateko brontzezko domina
lortu baitzuen aulki mugikorraren
2022ko Espainiako Txapelketan.

Taldekako bereizgarri gorenak
emakumezkoen Bizkerre Talde-
arentzat izan ziren Ligako bere titulu-
agatik eta RFEF-ko 2. maila-
ra igotzeagatik; eta gizonezkoen
kategorian, Raspas del Embar-
cadero Arraun Elkartearentzat,



Xabier López-Arostegui Amaia Agirre alkateak emandako saria bere aita Rafak jaso zuen

bere brontzezko dominagatik 4x
modalitateko Espainiako Txapel-
ketan. Junior kategoriako taldeen
sariei dagokienez, sarituak hauek
izan dira: Getxo Igeriketa Bolue
Kirol Elkarteko emakumezkoen
taldea, 1. Mailako Espainiako
Klub Kopan 8. sailkatzeagatik
(mailari eutsiz), eta José Luis de
Ugarte Bela Eskolako gizon tal-
dea, J-80 Munduko Txapelketako
bere garaipenagatik.

Edizio honetako garaipen-ze-
rrenda sari bereziekin osatu zen:
Marka Hautsiz saria Getxo Kayaka
klubeko Dragon Boat itsasontziari
eman zitzaion; Kiroltasuna saria
Arenas Klubeko Franqui Egus-
quiaguirre presidente ohiari; Ge-
txo Irristan klubak Getxo Berrituz
aintzatespena jaso zuen; Giroa
enpresak Getxo Zabala saria; Real
Club Marítimo del Abra-Real
Sporting Club elkartek Berdin-
tasuna Indartuz saria, hirugarren



Ezkerretik eskuinera, Virginia Díazaren ama (arrauna), Xabier López-Arosteguiaren gurasoak (saskibaloia), Irene Pera (igeriketa) eta Aitor Blanco (arrauna), urteko kirolari onena izateko hautagaiak zirenen

aldiz jarraian Internacional Wo-
men's Sailing Cup txapelketa an-
tolatzeagatik; eta Jorge Barriek
Aitzindariak saria jaso zuen fut-

boleko atezain bezala eta jarraian
tenis eta padel jokalaria bezala ga-
ratutako bere ibilbide zabal eta
arrakastatsuagatik.



Sarietako pertsona guztien familiako argazkia